

## AGERTOKI BERRIA: LTD KANALAK

### Aldaketak aurreikusitako Ekintza Planean

2012ko urtarrilean, jakinarazpen bat bidali genien **LTDa hedatzeko** hartune berriak ukitutako udalei, izan ere, aurreikusita zegoen espektroko goiko kanalak kentzea, kanal berriak jartzea eta zeudenak berrantolatzea.

Hala ere, **Agenda Digital berriari buruz eztabaidatzeko Estatuko Adituen Batzordea** sortu ostean, aurreikusitako planek hainbat aldaketa izango omen dituzte, izan ere, ITELAZPItik jakinarazi digutenez, Batzorde horrek honakoa adostu du:

- 1.) Krisi ekonomikoaren egoerak eta Europar Batzordearen aurreko txosten batek Dibidendu Digitalaren simulcasterako aurreikusitako Konpentsazio Plana ezetsi dute.
- 2.) Beraz, 2012rako, espektroaren enkantean lortutako 800 milioi euroko partida ezezten da, eta aurrekontu-partida txiki bat baino ez da mantentzen (45 M € gutxi gorabehera) antenizazioaren laguntzetarako.
- 4.) Hedapen guneetan (populazio dentsitate txikia) kanal berriak zabaltzea ez da Ministerioaren eta Erkidego Autonomoen arteko hitzarmen bidez finantzatuko → Udalen esku, Gobernu Autonomoen lankidetzarekin.
- 5.) Kanalei uko egitea telebistekin negoziatuko da; horrek ekarriko du aurreikusitako 10 kanaletik 5/6 kanalera pasatzea (aurreikusitako 45 programatik LTDko oinarritzko 20 programara), baita HD bereizmen handiko planei eta ordainketa-telebistei uko egitea ere.

Proposatutako aldaketa horiek inbertsio berriak egin behar izatea saihestuko lukete, Hedapenezko Zentro Igorleetan dagoen materialarekin nahikoa izango bailitzateke, kanal berriak kenduko liratekeelako. Estatuak zuzendutako berrantolaketari itxarotea baino ez litzateke faltatuko.

### **Ohar garrantzitsua**

Garrantzitsua da udalek etorkizunean arazorik sor lezakeen ekintzarik ez egitea, izan ere, Eusko Jaurlaritzak edo Itelazpik ez dituzte bere gain hartuko udalek bere kabuz egindako ekintzak.

Bilbon, 2012ko maiatzaren 15ean